

2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

EGUNAK	Azaroak 24 - 26 Abenduak 1 - 3	IKASGELA/ TOKIA	IVAPeko sotoko gelategia 29. gela Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
IRAUPENA	8 ordu	ORDUTEGIA	09:00 - 11:00
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Azaroak 6	ONIRITZI EPEA	Azaroak 9 - 13
IKASLE KOPURUA	12 gehienez	NORENTZAT	B2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da B1 maila egiaztatuta izatea.
IRAKASLEA	AEK		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	2. HEko ahozkoak sortzen trebatzea. Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHATZAK	Azterketaren aurkezpena egitea. IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jartotasuna, aberastasuna eta zuzentasuna. Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea. Komunikagaitasuna zer den azaltzea. Jartotasunaz berba egitea. Aberastasanaren gaineko argibide batzuk ematea. Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarritzkoak diren akats larriak aipatu eta aholkuak ematea.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 2. HEko ahozkoak sortu behar dituenean, egitura jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebalutzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA	Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna. Bakarka edo binaka egingo da lan. Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.
--------------------	--



2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

Lau egunetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Eta jarraian ahozko azterketaren entseguak egingo dira.

PROGRAMA

Bikote batzuek bakarkako saioa egingo dute eta beste batzuek elkarreraginaren ariketa. Bikote bakoitzak bukatu eta gero, ikaskideek iritzia emango dute (gai/ez gai, zergatik, zer alde on izan dituen, zer eta nola hobetu ahal duen) eta irakasleak ere bere ikuspuntua emango du.

Bikoteak txandakatzen joango dira ikasle guztiak bakarkako saioak eta elkarreraginarenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, horrela eginda, eta egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek izan dituzten alderdi positiboak indartzeko eta txarto egin dituzten puntuak hobetzen saiatzeko parada izango dute.

EBALUAZIOA

- **Ebaluaketaren helburua:** ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketan** ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

PREZIOA

114 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.